

JUNE SANCHEZ TOLARETXIPI beka-deialdia 2016

Euskal Herriko Pediatria Elkarteak, Juneren Hegoak elkartearekin batera, **4.000 €ko** “**JUNE SANCHEZ TOLARETXIPI**” beka-deialdia egiten du.

1. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea haur onkologiaren inguruko ikerketarako diru laguntza eskaintzea da, diziplina horren edozein alorrerako, eta gaixo talde horren diagnosia, jarraipena eta tratamendua hobetzen lagunduko duen edozein proiekturako. Aintzat hartuko dira eritasunaren jatorria, faktore iragarleak eta tratamenduak ikertuko dituzten proiektuak, eta baita teknika diagnostikoen edo terapeutikoen ikaskuntzara bideratutako proiektuak ere, baldin gaixo onkologikoen bizi-kalitatea hobetzera zuzenduta badaude.

2. BEKA ESKATZEKO BALDINTZAK

Beharrezkoa izango da deialdiaren xedearekin bat egiten duten ikerketa proiektu bat aurkeztea. Egitasmoaren ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du proiektua.

Ikertzaile nagusiak hau bete beharko du:

- Euskal Herriko Pediatria Elkarteko bazkide izan.
- Zuzendaritzan egindako ziurtagiri bidez, zentro pediatriko batean bi urteko jarduna izanaren ziurtapena.

Erregistratze egokia bermatzeko, ezinbestekoa izango da hautagaiek **2017ko uztailaren 3** baino lehen berariaz sortutako [formularioaren](#) bidez.

3. ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA

Eskaera-orria Elkartearen webgunean dago eta atal hauek ditu:

1. Proiektuaren datuak, ikertzailea nagusiarenak eta ikerketa taldearenak.
2. Ikerketa proiektuaren laburpena (gehienez orrialde bat)
3. Proiektuaren memoria (gehienez 10 orrialde), zera aipatuko duena:
 - A. Gaiaren aurrekariak eta gaur egungo egoera, bibliografia labur batez lagundurik.
 - B. Lanaren helburu zehatzak.

- C. Materiala eta metodologia. Lan plana eta aukeratutako Zentroa. Eskaera atzerriko zentro baterako bada, ziurtatu beharko da agiri bitartez hautagaiak zentroaren herrialdeko hizkuntzaren ezagutza nahikoa duela.
- D. Aurrekontua, eskuartean diren baliabideak aipatuko dituen eta beste finantzazio iturri batzuen inguruko zinpeko deklarazioa izango duena. Hala gertatuz gero, zehaztu beharko da finantziario ematen duen erakundearen izena eta zenbateko.
- E. Ikerketa taldearen historial zientifikoa, halakorik balego.

→ Ikertzaile nagusiaren Curriculum Vitae-a (azken 5 urtekoa).

→ Ikerketa egingo den Zentroaren onespina.

4. ESKAERAK AURKEZTEKO FORMATUA ETA EPEAK.

Eskatutako informazio osoa dokumentu bakar batean aurkeztu beharko da, PDF formatuan.

PDF fitxategiaren izenean ikertzaile nagusiaren izena jarri behar da, abizenetik hasita. PDF fitxategia [formularioaren](#) bidez egindako eskaerari erantsiko zaio.

Eskaerak jasotzeko epea **2017ko uztailaren 3an, 23:59tan** amaitzen da. Ez da onartuko epe hau gainditzen duen eskabiderik.

Bidalitako dokumentazioak baldintzak beteko ez balitu edo osatugabea balego, eskatzaileari dokumentazioa zuzentzeko edo osatzeko eskatuko zaio eta 10 eguneko epea emango zaio horretarako. Horrelakorik egin ezean, bertan behera geratuko da eskaera eta bestako tramiterik gabe artxibatuko da.

Deialdiaren baldintzak ez betetzeak eta datuen ezkutaketa, aldaketa edo manipulaziok, proposamenaren deuseztapena edo diru laguntzaren errelokazioa ekarriko du.

Deialdi honen ebazpena Elkartearen web orrian argitaratuko da **2017ko uztailaren 31an** eta posta elektronikoz jakinaraziko zaio ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiari.

5. PROIEKTUEN EBALUAZIOA

Eskaerak Euskal Herriko Pediatria Elkarteko zuzendaritza batzordeko kideek eta Juneren Hegoak Elkarteko zuzendaritza batzordeko kideek ebaluatuko dituzte. Proiektuen aukeraketa irizpide hauetan oinarrituko da:

- a) Proiektuaren kalitate zientifikoa eta bideragarritasun ekonomikoa.
- b) Ikertzaile nagusiaren eta ikerketa taldearen historial zientifikoa. Arreta berezia eskainiko zaio azken 5 urtean egindako lanari.

Aditu batzorde honen azken erabakia irmoa eta apelaezina da.

Batzordeak eskubidea izango du ere deialdia hutsik uzteko ikusten badu aurkeztutako proiektuek ez dutela beharrezko baldintzak betetzen.

6. DIRU LAGUNTZAREN BALDINTZAK

Diru laguntza, proiektuaren bai mugarik gabeko gastu zuzenak (pertsonala, material suntsikorra, azpiegiturak, zerbitzu teknikoak, bidaiak, eta beste motatako gastuak), baita proiektuak sortu ditzaken beste zeharkako gastuak betetzeko emango da, azken honek, %5 gainditu ezingo duelarik.

Diru laguntzaren kopurua bi zatitan emango da: %75 proiektuaren hasierako datan, eta beste %25 proiektuaren bukaeran.

Deialdi honetan aurreikusten den diru laguntzak eskatutako aurrekontuaren zati bat edo aurrekontu osoa finantzatuko du. Proiektu hau aurrera eramateko beste diru iturritik lortutako laguntzaren berri eman beharko zaio Juneren Hegoak Elkarteari.

Proiektua garatzeko jasotako diru laguntzen kopurua ez da inoiz proiektuaren aurrekontua baino handiagoa izango.

Laguntza honen ondorioz sortutako argitalpen edo oihartzun mediatiko guztietan, ikertzaileak Euskal Herriko Pediatria Elkarteak eta Juneren Hegoak elkartearen laguntza berariaz azaldu behar du.

Ezarrirako epea bukatu ondoren, eta hilabete bateko epean, ikertzaileak proiektuaren garapenari eta lortutako emaitzei buruzko txosten bat aurkeztu beharko du.

Bekadun bazkideak hurrengo ikasturteko lehenengo **Bilera Zientifikoan bere lana aurkezteko ardura hartuko du** eta bidaliko du bere argitalpenerako **Euskal Herriko Pediatria Elkartearen Buletinean**.

Euskal Herriko Pediatria Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak bekadunaren lanaren garapenaren berri jasoko du, eta diru laguntzaren etekina zuzena ez bada diru laguntza bera eten egin dezake.

Deialdi honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.